


IRAKASLEAK. SENTSIBILIZAZIOA

3.2. TRESNA. ZENBAIT KONTZEPTU ARGITUZ.

Jarraian, diapositiba batzuk aurkeztuko ditugu, saioa dinamizatzen duen pertsonari aztertutako kontzeptuak bateratzen laguntzeko.

Aurkezpen honetan, terminoen glosarioan agertzen diren kontzeptuak jasotzen dira.



EAE-KO IKASTETXEETARAKO HEZKIDETZA-PLANA EGITEKO GIDA. IRAKASLEAK

HEZKIDETZA IKASTETXEETAN

ESKOLA HEZKIDETZAILEA

Neska eta mutilekin nahitako interbentzio prozesua aurrera eramaten saiatzen den erakunde hezitzailea, bere garapena bi sexu ezberdinen errealitatek abiatuz indartzen duena, norbanakoaren garapena bultzatu eta aurka egin gabe gizarte eraiketa komuna lortu aldera. Aldatu nahi diren alderdien errealitatearen onarpena, azterketa eta kritikatik abiatzen da, hau da, eskola eta kultura sexismoa.



EAE-KO IKASTETXEETARAKO HEZKIDETZA-PLANA EGITEKO GIDA. IRAKASLEAK

HEZKIDETZA IKASTETXEETAN

HEZKIDETZA. Hezkidetza genero ezberdintasunen desagertzea progresiboa helburu duen hezkuntza planteamendua da, eta ez bakarrik eskolako egitura formalean, baizik eta baita ideologia eta hezkuntza praktikan ere. Gizonezko eta emakumezkoen kulturek dauzkaten aspektu positiboak berreskuratu eta jokabide eredu bihurtzea izango litzateke, genero batekin modu dikotomikoan lotu gabe, honela neska eta mutilen giza garapena bultzatuz eta identitate pertsonala duten subjektu gisa onartuz, genero estereotipoetatik at.



EAE-KO IKASTETXEETARAKO HEZKIDETZA-PLANA EGITEKO GIDA. IRAKASLEAK

HEZKIDETZA IKASTETXEETAN

HEZKIDETZA. Hezkidetza hezkuntzan nahita egindako esku-hartzearen eduki, helburu eta estrategia multzoa da, edozein hezkuntza agentek garatua, genero ezberdintasunak prebenitu, indartu, orekatu edo errotik ateratzeko.

Hezkidetza hezkuntza ekintza “genero aniztasunaren trataerari” egokitzea da.



EAE-KO IKASTETXEETARAKO HEZKIDETZA-PLANA EGITEKO GIDA. IRAKASLEAK

HEZKIDETZA IKASTETXEETAN

HEZKUNZA AFEKTIBO ETA SEXUALA

Gizakien artean ematen diren sentimenduzko harremanak hobetzen dituzten gaitasunak garatzea bilatzen duen hezkuntza da.

Estereotipo eta patriarkatuaren eskutik sortu eta mina edo tratatu txarra eragiten duten harremanak prebenitu edo tratatzen ditu.



HEZKIDETZA IKASTETXEETAN

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Gizon batzuek emakumeen aurka emakume izate hutsagatik erabiltzen duten indarkeriari zenbait modutan deitzen zaio: indarkeria matxista, indarkeria sexista, genero-indarkeria edo emakumeen aurkako indarkeria. Indarkeria hori, nagusiki, gizonek emakumeekiko duten botere-sistema asimetrikoaren ondorioa da, eta horrek generoan oinarritutako diskriminazioa eragiten du.



HEZKIDETZA IKASTETXEETAN

IKUSEZINTASUNA / AGERIKOTASUNA.

•**Agerikotasuna.** Agerikotasunak emakumeen historiaren aitortzea eta balioa handitzea suposatzen du, munduan eta bizitzan duten paperarena.

•**Ikusezintasuna.** Giza talde baten presentzia isilean gordetzera eramaten duen kultura mekanismoen multzoa. Dominazio harremanetan menderatuak diren taldeei eragiten die batez ere ikusezintasunak, eta emakumeena da kasu nabariena. Ikusezintasuna kausa eta ondorio da hizkuntzaren erabilera sexistaz hitz egiten dugunean.



EAE-KO IKASTETXEETARAKO HEZKIDETZA-PLANA EGITEKO GIDA. IRAKASLEAK

HEZKIDETZA IKASTETXEETAN

SEXUA/GENEROA

•**Sexua.** Pertsonen ezaugarri biologikoen multzoa, jaiotza aurretik determinatuak eta oinarrian aldaezinak, gizon edo emakume bezala identifikatzen dituztenak.

•**Generoa.** Sexu biologikoaren arabera gizonezko eta emakumezkoentzat giza rola, jarrerak eta gaitasunak atxikitzen dituen kultura konstrukzioa.



EAE-KO IKASTETXEETARAKO HEZKIDETZA-PLANA EGITEKO GIDA. IRAKASLEAK

HEZKIDETZA IKASTETXEETAN

SOLDATA ARRAKALA

Emakumeen eta gizonen arteko soldata-desberdintasunaren kontzeptuak (edo soldata-aldea edo arrakala) emakumeen eta gizonen batez besteko ordainsarian (soldata gehi osagarriak) dagoen aldea adierazten du.

Soldata-arrakalak diskriminazioa eta desberdintasunak islatzen ditu lan-merkatuan, eta, praktikan, batez ere emakumeengan dauka eragina. Soldata-arrakala horrek eragin zuzena du Gizarte Segurantzako kotizazioetan eta pentsioen ondorengo pertzepzioan, eta lotura estua du emakumeen autonomia ekonomiko txikiagoarekin eta pobrezia-indize handiagoekin,



EAE-KO IKASTETXEETARAKO HEZKIDETZA-PLANA EGITEKO GIDA. IRAKASLEAK

HEZKIDETZA IKASTETXEETAN

ERANTZUKIDETASUNA

Etxeko ardurak emakume eta gizonen artean banatzeari egiten dio aipamen, hau da, bizitza publikoan emakumeen partaidetza osoa errazteari gizonek familia esparruko jardueretan ardurak konpartitzea bultzatuz.

EAE-KO IKASTETXEETARAKO HEZKIDETZA-PLANA EGITEKO GIDA. IRAKASLEAK

HEZKIDETZA IKASTETXEETAN

HIZKUNTZAREN ERABILERA SEXISTA

Hizkuntzaren erabilera okerra, emakumeen gutxiespena, barregarri geratzera... daramana sexismoaren kasuan eta baztertze eta ikusezintasunera androzentrismoaren kasuan.



EAE-KO IKASTETXEETARAKO HEZKIDETZA-PLANA EGITEKO GIDA. IRAKASLEAK

HEZKIDETZA IKASTETXEETAN

BERDINTASUNA

Egoera horretan, gizaki guztiak aske dira beren gaitasun pertsonalak garatzeko eta beren erabakien jabe izateko, rol tradizionalak ezarritako inolako mugarik gabe.



EAE-KO IKASTETXEETARAKO HEZKIDETZA-PLANA EGITEKO GIDA. IRAKASLEAK

HEZKIDETZA IKASTETXEETAN

ANIZTASUNA/SEXU ANIZTASUNA

•**Aniztasuna.** Aniztasuna ugaritasun, oparotasun, gauza ezberdin asko bezala ulertzen da. Aniztasun hitzak zentzu positiboa du gizarteari dagokionean: anitza den zerbait ona da.

•**Sexu aniztasuna.** Sexualitatearen aukera guztia adierazten du esaera honek, erakarpen, portaera, identitate, itxura, orientazio, harreman eta sexu erreakzioaren alde guztiak hartzen dituelarik.



EAE-KO IKASTETXEETARAKO HEZKIDETZA-PLANA EGITEKO GIDA. IRAKASLEAK

HEZKIDETZA IKASTETXEETAN

ANDROZENTRISMOA

Androzentrismoa munduaren ikuspegi bat da, gizona gauza guztien erdigunetzat jotzen dituen.

Errealitatearen ikuskera hori ideia honetatik abiatzen da: gizonezkoen begirada posible eta unibertsal bakarra da, eta, horrenbestez, pertsona guztientzat orokortzen da, gizonak zein emakumeak izan.

Androzentrismoak berekin dakar emakumeen eta haien munduaren ikusezintasuna, emakumeen begirada ukatzea eta emakumeek egindako ekarpenak ezkatzea.



EAE-KO IKASTETXEETARAKO HEZKIDETZA-PLANA EGITEKO GIDA. IRAKASLEAK

HEZKIDETZA IKASTETXEETAN

PATRIARKATUA

Sexu- eta politika-harreman sozialen sistema, zenbait erakunde publiko eta pribatutan oinarritutako erakundetan oinarrituak, baita gizonek ezarritako klaseen arteko eta genero-barneko elkartzunean oinarritutakoak ere. Izan ere, gizonek, talde sozial gisa, eta banaka zein taldeka, emakumeak zapaltzen dituzte, banaka eta taldeka zapaldu ere, eta haien gorputzetako eta produktuetako ekoizpen- eta ugalketa-indarraz jabetzen dira, dela bitarteko baketsuen bidez, dela indarkeria erabiliz.

